



# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriak 15

Vitoria-Gasteiz, 15 de octubre de 2024

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### GOBERNU KONTSEILUAK HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO ZERBITZUAK (ELEBIDEK) AURKEZTUTAKO 2023KO TXOSTENA ONARTU DU

- **2023** urtean hizkuntza eskubideen urraketekin loturiko **222** intzidentzia erregistratu ziren, iaz baina **10** gehiago.
- **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuak** jasotzen dituen kexa gehienak (**%91,3**) esparru publikoan gertatutako eskubide-urraketekin lotuta daude.
- **Urraketen %98,8** euskara erabiltzeko eskubidearekin lotuta dago.

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Elebideren, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren, 2023ko txostena. Bertan jasotzen denez, 2023an hizkuntza eskubideen urraketekin loturiko 222 intzidentzia erregistratu ziren Elebiden, aurreko urtean baino 10 gehiago.

222 intzidentzia horietatik:

- 25 baliogabetu egin ziren aurreko baten errepikapena edo errakuntzak zirelako.
- 8 ezin izan ziren izapidetu, herritarrak ez baitzuen erantzunik eman, izapidetzeko beharrezkoa zen daturen bat eskatu zitzaionean.
- Gainontzeko 197 intzidentzietatik 13 ez ziren onartu intzidentzia izapidetzeko oinarri juridikorik ez zegoelako.

Ondorioz, 2023an 176 intzidentzia izapidetu ziren.

Izapidetutako intzidentzia guztien artean, 161 kexak izan ziren, eta horien artean 159tan (% 98,8) urraketa euskara erabiltzeko eskubidearekin lotuta egon zen; eta, 2 kasutan, eskubide-urraketa gaztelaniarekin lotuta egon zen. Kexa guztien % 91,3 (147 kexa) esparru publikoan gertatutako eskubide urratzeak ziren, eta % 8,7 (14 kexa) esparru pribatuari zegozkien. Gainontzeko intzidentziak kontsultak (11), eskaerak (2) eta iradokizunak (2) izan dira.

2023. urtean zehar Elebide zerbitzura zuzendu diren intzidentzien % 73,1 (144 intzidentzia) gizonetakoek aurkeztu dituzte, % 26,4 (52 intzidentzia) emakumeetakoek, eta %0,5 (intzidentzia 1) bitarra ez diren pertsonak.

#### **Kexak esparruz esparru**

Kexa guztien % 91,3 esparru publikoan gertatutako eskubide urratzeak izan ziren eta horietatik gehienak EAEko Administrazio Orokorriari (% 40,8) eta Toki Administrazioari (% 31,8) lotuta gertatu ziren.

Honela banatzen dira EAEko sektore publikoari dagozkion kexak:

- 23 Eusko Jaurlaritzaren arau urraketek salaketak izan ziren (Segurtasuna, 1; Gobernantza eta Autogobernua, 7; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasuna eta Ingurumena, 2; Ekonomia eta Ogasuna, 1; Hezkuntza, 3; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak, 2; Osasuna,

- 1; Berdintasuna eta Gizarte Politikak, 2; eta, azkenik, Kultura eta Hizkuntza Politika, 1).
- 37 Eusko Jaurlaritzaren erakunde eta sozietate publikoek jaso dituzten kexak dira (horietatik 26 Osakidetzak jaso dituen kexak dira; Eusko Trenbideak 5 kexa jaso ditu; Eusko Trenbide Sareak 1; Osatek-ek, 3; EJIek, 1; eta, UPV-EHUK, 1).
  - Foru aldundien kontra aurkeztutako kexen kasuan 2023an 2022an zehar baino kexa bat gehiago jaso da.
  - Toki administrazioei dagokienez, 56 kexa jaso ziren, aurreko urtean baino 8 gehiago. Arabako udalek 4 kexa jaso zituzten 2023an, 2022an jasotako kexa kopuru bera. Bizkaiko udalei eta haren menpeko erakundeei dagokienez, 48 kexa jaso zituzten guztira 2023an, 2022an baino 8 gehiago. Azkenik, Gipuzkoako udalek 4 kexa jaso zituzten 2023an, 2022an jasotako kexa kopuru bera.
  - Estatuko Administrazioari eta haren erakundeei eta sozietateei (Correos y Telégrafos SA; Kontsumoaren, Elikagaien Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentzia; Gizarte Segurantza; Trafiko Zuzendaritza Nagusia; Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa; eta, AENA) zuzenduta, 9 kexa izan dira, 2022an jasotako kexa kopuru bera.

Esparru pribatuari dagokionez 14 kexa jaso ziren 2023an. Urraketak arlo hauetan gertatu ziren:

- Interes orokorra (6)
- Kultura, kirola eta aisia (4)
- Merkataritza (3)
- Finantzak eta aseguruak (1)

Esparru pribatuan irabazi asmorik gabeko erakunde zein elkarteak eta jarduera profesionalei lotutako erakunde eta enpresak hartu ziren kontuan. Kexak onartzeko orduan kontuan izan dira arlo pribatuko hizkuntza-eskubideak bermatze aldera argitaratu ziren apirilaren 27ko 4/2023 Legea -Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuarena-, eta uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua – Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua-, horietan ezartzen baita zein erakunde edo enpresa dauden legez behartuta eta zein hizkuntza-eskubide bermatu behar dituzten.

### Kexen tipologia

2023. urtean Elebiden izapidetu ziren 161 kexak lau multzo nagusitan sailkatzen dira:

- **Idatzizko harremanetan gertatzen diren urraketak:** 49 kexa jaso ziren, kasu gehienetan herritarrak kexatu dira gaztelaniaz bakarrik zegoelako eskuragarri beharrezkoa zuten informazioa, eta komunikazioak gaztelaniaz bidali dizkietelako, nahiz eta euskara izan harreman-hizkuntza gisa hautatuta.
- **Ahozko harremanetan izaten direnak:** 43 kexa jaso ziren; horietan herritarrek nagusiki adierazi zuten euskaraz artatuak izateko eskubidea urratu zitzaie.

- **Hizkuntza-paisaian antzeman daitezkeenak (errotuluak, seinaleak...):** 43 izan ziren 2023an. Kexa horiek bideetan eta jendaurrean gaztelania hutsean edo euskaraz oker idatzitako kartelei, trafiko seinaleei eta jendaurreko bestelako seinaleei egiten zieten erreferentzia gehienbat.
- **Internet eta sare sozialetan ikus daitezkeenak:** arau urraketak 6 izan ziren.

Beste 20 kexa multzo batean baino gehiago sailkatu dira (Idatzizko eta ahozko harremana, Internet eta harremana, paisaia eta harremana...)

### Kexen konponbidea

2023an izapidetutako 161 kexetatik 110k (% 68,3) irtenbide egokia izan zuten. 24 kexa (%14,9) izan ziren irtenbiderik gabe itxi zirenak, erreklamatuak Elebidek bidalitako jakinarazpenei erantzun ez izateagatik. Azkenik, 27 kexak (% 16,8) ez zuten irtenbiderik izan herritarrek erreklamatuak entitatean emandako erantzuna ez zuelako onartu.

### Elebide

Elebide-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua 2007an jarri zen abian eta helburua da hala eskatzen duten herritarrei beren hizkuntza-eskubideak babesten laguntzea, informazioa eta aholkularitza eskainiz. Bere hastapenetik hiru dira Elebideren berezko eginkizunak:

1. Hizkuntza eskubidek sustatu eta bermatzea
2. Berme hori eraginkorra izan dadin prozedura bat ezartzea
3. Konponbideak ezartzeko ardura duten administrazioekin eta erakundeekin lankidetzan jardutea

Honako hau da, urtez urte, Elebiden jasotako kexen kopurua:

URTEA	INTZIDENTZIA-KOPURUA
2007	248
2008	310
2009	225
2010	297
2011	296
2012	340
2013	359
2014	412
2015	789
2016	576
2017	346
2018	245
2019	194
2020	246
2021	277
2022	212
2023	222

## Ekonomia, Lana eta Enplegua

### LANBIDEK 150.000 EUROTAN HANDITU DITU TXANDA-KONTRATURAKO LAGUNTZAK

- **Deialdi honek urriaren 18an irekitzen du eskaera egiteko epea, eta langabezian dauden gazteak eta 45 urtetik gorakoak laneratzea du helburu.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 150.000 euro gehitu du 2024rako txanda-kontraturako laguntzen deialdirako. Horrela, hasieran egindako inbertsioa 1.350.000 eurokoa da.

Helburua da errelebo-kontratuak zabaltzea eta gure gizartean egoera ahulenean dauden kolektiboen laneratzea erraztea; zehazki, langabezian dauden gazteena eta 45 urtetik gorakoena.

Ekimen hau jasotako eskaeren bolumenetik abiatzen da, nabarmen gainditu baititu aurreikuspen guztiak. Lanbideko zuzendari nagusiak, Francisco Pedrazak, ziurtatu du "oso positiboa" dela enpresek erakutsitako interesa, eta azpimarratu du ahalik eta eskaera gehienei erantzun behar zaiela.

Eskabideak aurkezteko epea datorren ostiralean, urriak 18, irekiko da, eta lanbide.euskadi.eus-en bidez bidali beharko dira. Laguntzak aurkezpen-ordenaren arabera emango dira, betiere eskabideek deialdian aurreikusitako betekizun guztiak betetzen badituzte.

## Hezkuntza

**INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA ATZERRIAN IKASTEKO 536  
EGONALDI DEITU DITU HEZKUNTZAK SAILAK, BIGARREN  
HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT**

2025eko udako hizkuntza-ikastaroak izango dira, eta Batxilergoko eta DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek egin ahal izango dituzte.

Hezkuntza Sailak, 2025eko udari begira, 532 plaza eskainiko ditu Alemanian, Frantzian, Irlandan eta Erresuma Batuan hizkuntza-ikastaroak egiteko, DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzat. Bi asteko egonaldiak izango dira, eta 1.033.571 euro emango ditu Sailak.

Herrialdea eta hizkuntza	1. tartea			2. tartea			Plazak guztira
	DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. maila		Batxilergo ko 2. maila	DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. maila		Batxilergo ko 2. maila	
	DBH 3 eta 4	BATXI 1		DBH 3 eta 4	BATXI 1		
1.- Ingelesa Irlandan	70	43	40	20	13	12	198
2.- Ingelesa Erresuma Batuan	89	55	53	31	18	18	264 (+ 4*)
3.- Frantsesa Frantzian	24		6	16		4	50
4.- Alemana Alemanian	8		2	8		2	20
Plazak guztira	390			142			532 (536)

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK IKASKETAK AMAITZEKO MALGUTASUN HANDIAGOA BEHAR DUTEN LHKO IKASLEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDI BAT ONARTU DU

Eskaintza partzialaren modalitatea aukera baliotsua da bai ikasleentzat zein lan-merkatuarentzat, eta Eusko Jaurlaritzak 286.700 € bideratuko ditu kualifikazio-maila hobetu nahi duten 18 urtetik gorakoei ikasketetarako sarbidea errazteko.

Eusko Jaurlaritzak agindu hau onartu du gaur Gobernu Kontseiluan: Agindua, zeinaren bidez Lanbide Heziketak irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxeei dei egiten baitzaie 2024-2025 ikasturterako eskaintza partzialeko modalitatean prestakuntza-zikloak emateko dirulaguntzak eskatzeko. Deialdi honen kontura emango diren laguntzen zenbateko osoa 286.700 eurokoa da.

Deialdi honen helburua ikasleen beharretara egokitutako prestakuntza malguaren eskaera gero eta handiagoari erantzutea da, bereziki lanean ari direnentzat. Kontuan izanik lan-ingurunea etengabe aldatzen ari dela, helburua kompetentzien eguneratzea eta hobekuntza sustatzea da, eta, horretarako, dagozkion titulazioak lortzea ahalbidetuko duten prestakuntzetarako sarbidea erraztuko da, lan-aukerak hobetzeko helburuarekin.

Eskaintza Partzial honen bidez, LHko ikasleak modulu (edo irakasgai) solteetan modu independentean matrikulatu ahalko dira, ikasturtea osatzen duten modulu guztietan izena emateak dakarren matrikula arruntaren bidez ez bezala. Eskoletara joatea derrigorrezkoa da oraindik ere modalitate honetan, baina denbora gutxiago beharko da, eta, horri esker, ikasleek beste jarduera batzuk egin ditzakete moduluak ikasten dituzten bitartean.

Eskaintza modular partzial hau prestakuntza-maila hobetu nahi duten eta LHko heziketa-zikloetan sartzeko baldintzak betetzen dituzten 18 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago. Lanbide-modulua edo -moduluak gaindituz gero, eskuratutako kompetentzien ziurtagiri akademikoa eta egiaztapen partzial metagarria lortuko dira. Matrikula ikasturtearen hasieran egiten da.

#### **Kompetentzia profesionalak aitortzeari buruzko kanpaina**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak lanbide-eskakizunak egiaztatzeari buruzko informazio-kanpaina bat jarri du abian. Kanpaina hau datozen asteetan azalduko da hainbat hedabidetako publizitate-saioetan, eta lan-esperientzia duten baina hori egiaztatzeko ziurtagiririk ez duten pertsona guztiei dago zuzenduta.

Bi urtetik gorako esperientzia edo 200 orduko prestakuntza ez-formala duten ikasleek titulazio ofizial bat lortu ahal izango dute Euskadiko LHko kompetentziak egiaztatzeko prozesuaren bidez. Sistema erraza eta doakoa da, eta

profesionalek beren ibilbide profesionalean eta egindako ikastaroetan eskuratu dituzten trebetasunak eta ezagutzak aitortzen ditu. Ez da beharrezkoa alde zurreko ikasketarik izatea, probarik egitea edo prestakuntza-zentro batera joatea. Sistema honek konpetentziak ofizialki ebaluatzeko eta egiaztatzeko aukera ematen du.

### **Malgutasuna eta eskaintza handia**

Guztira, 182 ikastetxek eskainiko dute Lanbide Heziketa ikasteko aukera **Euskadin** 2024-2025 ikasturtean. LH-Euskadik 158 titulazio ikasteko aukera ematen du (oinarrizko, erdi-mailako edo goi-mailako Heziketa Zikloak), baita 22 espezializazio-ikastaro eta 39 lanbide-ziurtagiri ere, guztiak 23 lanbide-arrantakoak. 2023-2024 ikasturte honetan 49.000 ikasle baino gehiago ari dira ikasten Lanbide Heziketako heziketa-zikloren bat edo espezializazio-ikastaroren bat Euskadin, aukerako modalitate hauetan: aurrez aurrekoa, urrutikoa edo eskaintza partzialekoa.



## Hezkuntza

### **EUSKO JAURLARITZAK 2024KO AURREKONTUEN LEGEA ALDATZEA ONARTU DU, ITUNPEKO SAREKO ETA SARE PUBLIKOKO LANGILEEN SOLDATAK PIXKANAKA PAREKATZEA AHALBIDETZEKO**

Eusko Jaurlaritzak Gobernu Kontseiluan onartu du gaur Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legea aldatzea, Ogasun eta Finantzak hala proposatuta. Hori onartuta, prozesu progresibo bat abiaraziko da; 2027 urtera begira, aukera emango du itunpeko ikastetxe pribatueta Hezkuntza Sailak finantzatutako irakasleen eta hezkuntzako langileen soldatak eta ikastetxe publikoetakoena parekatzeko.

Prozesu hori bi lege-aginduren baitan kokatzen da: alde batetik, Hezkuntzako Lege Organikoa (2006), parekatze hori ahalbidetzekoa, eta, bestetik, EAEko Hezkuntzaren Legea (2023), funts publikoen bitartez finantzatuta dauden itunpeko ikastetxeen bidez dagokien ikaskuntza doakoa eta kalitatezkoa ematea bermatzeari buruzkoa.

Halaber, parekatze-prozesuak Euskadiko itunpeko ikastetxe guztien, gizarte-ekimeneko ikastetxeen eta ikastolen ordezkarien adostasuna du, baita sindikatu nagusien ordezkariena ere.

Soldata-parekatze horri esker, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa ematen duten ikastetxeetan irakaskuntzaren doakotasunerantz urratsak ematen jarrai daiteke, itunpeko ikastetxeek beren kuoten bidez soldata-igoeren ondorioak islatu behar izatea saihestuko baitu.

#### **Irakaslegoa: Hezkuntza-prozesuan gehien eragiten duen figura**

Hezkuntzaren Euskal Lege berriak Hezkuntza Sistema eraldatzen du, eta helburu du kalitatezko zerbitzua ematea. Horretarako, betebeharrak gehigarriak ezarriko zaizkie Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoko ikastetxeei, besteak beste, gardentasuna eta langileen sarbidea.

Aldi berean, itunpeko sareko soldatak parekatzeak kalitatezko hezkuntza eskaintzen ahalegintzen diren profesionalen lana baldintza berdinetan aitortzeko beharri erantzuten dio. Izan ere, irakaslearen figura da hezkuntza-prozesuan eragin handiena duena.

Eusko Legebiltzarrera igorriko da lege-proiektua, bertan osoko bilkurak, eztabaidatu, izapidetu eta onar dezan.

## Etxebizitza eta Hiri Agenda

### ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILARENTZAKO KREDITU GLOBALA HANDITZEA ONARTU DU GOBERNU KONTSEILUAK

- **Kreditua handituta, gero eta laguntza-eskaera handiagoa duten hiru programen beharriaz erantzun die Eusko Jaurlaritzak. Hala, indartu egingo du etxebizitza eskuratzeko, etxebizitzak birgaitzea sustatzeko eta eredu jasangarriago eta efizienteago baterantz egiteko konpromisoa.**

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoaren 2024 ekitaldirako Aurrekontuaren Kreditu Globala handitzeko Akordio Proposamena onartu du. Horren bidez, 25.220.000 euro handituko da. Altxortegi-soberakinekin finantzatu da, eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren funtsezko hainbat programatan dituzten kreditu-beharriaz erantzun ahal izango zaie.

Hala, akordioaren bidez, honako proiektu eta dirulaguntzak finantzatzea bermatuko da:

- **Etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak:** guztira 10.000.000 euro bideratuko dira etxebizitza partikular eta komunitarioen bizigarritasuna, irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko, 2021eko uztailaren 21eko Aginduak xedatutakoaren arabera.
- **Gaztelagun programa:** 18 eta 35 urte bitarteko gazteek alokatzeko laguntzak eskaintzen ditu. Programa horrek 6.000.000 euro gehiago jasoko ditu, eskaera-kopurua handitzea espero denez, eskaera horiei erantzuteko.
- **Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE):** 147/2023 Dekretuak arautzen du, eta etxebizitza eskuratzeko eskubidea prestazio ekonomikoaren bidez bermatzea du helburu, etxebizitza edo bizitoki bat esleitu ezin denean. 9.220.000 euro bideratuko dira horretarako.

Kreditua handituta, gero eta laguntza-eskaera handiagoa duten hiru programen beharriaz erantzun die Eusko Jaurlaritzak; hala, indartu egingo du etxebizitza eskuratzeko, etxebizitzak birgaitzea sustatzeko eta eredu jasangarriago eta efizienteago baterantz egiteko konpromisoa.

Erabakiak 1/2011 Legegintzako Dekretua du oinarri. Horren bidez, Gobernuak aurrekontua handitu dezake, beharriaz berriak sortzen direnean eta altxortegi-soberakinekin erabilia. Araudiak xedatzen duenaren arabera, Ogasun eta Finantza Sailak hiru hilean behin emango dio Eusko Legebiltzarrari xedapen horren berri.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak lehentasuna ematen dio herritarren bizi-baldintzak hobetzeari, etxebizitza eskuratzeko eta efizientzia energetiko lortzeko laguntza-politiken bidez.

## Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa

**EUSKO JAURLARITZAK 5,2 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU  
HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEN BIDEZ AUKERAK  
SUSPERTZEN PROGRAMAREN EDIZIO BERRI BAT FINANTZATZEKO,  
CODI PROGRAMA BARNE**

Gobernu Kontseiluak, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburu Nerea Melgosak eskatuta, gaur erabaki du 5.179.300 euroko dirulaguntza zuzena ematea gizarte-ekimeneko Agintzari sozietate kooperatiboari, gizartearen eta hezkuntzaren arloan laguntzeko Aukerak Suspertzen programa komunitarioa finantzatzeko. Programa horren barruan dago CODI programa (berreskuratze, eraldatze eta erresilientzia planaren esparruan —Next Generation EU— europar batasunak finantzatua).

CODI programaren helburua da bazterketa-arriskuan dauden haur eta nerabeak oinarritzko gaitasun digitaletan prestatzea, eta Aukerak Suspertzen programarekin partekatzen du onuradunen tipologia eta eten digital soziala murrizteko azken helburua.

Aukerak Suspertzen programa, berriz, 2020an *Inor Atzean Utzi Gabe* funtsaren bidez bultzatutako zortzi ekimenetako bat da, Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioei aurre egiteko sortua, baina orduetik Eusko Jaurlaritza bultzatzen eta indartzen ari den egiturazko programa bihurtu da.

Aukerak Suspertzenek gizarte- eta hezkuntza-laguntza eskaintzen die gizarte-desabantailan dauden eta EAEko ikastetxe publiko eta itunduetan lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak egiten ari diren adingabeei, eten digitala ezabatzeko helburuarekin. Laguntza familietara hedatzen da.

Agintzari Euskadiko geografia osoan kokatutako hirugarren sektore sozialeko erakundeen sare bateko erakunde nagusia da. Erakundeak, programa kudeatzeaz eta koordinatzeaz gain, laguntza eskaintzen du gizartearen eta hezkuntzaren arloan sarearen laguntza iristen ez den eremu geografikoetan.

Jardueren izaera eta helburua gizarte-kalteberatasun egoeran dauden haur, nerabe eta gazteen kopuru handi batera iristea denez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak Agintzari programari funtsak zuzenean esleitzea erabaki du, CODI programa Aukerak Suspertzen programaren barruan sartzeko helburuarekin.

CODI programa Aukerak Suspertzen programaren barruan sartzeak programaren hartzaileen baldintza betetzea ahalbidetzen du. Aukerak Suspertzen programan parte hartzen duten erakundeen sareak bermatzen du CODI programa oso ingurune ahuletara iristea, herri txikietara, landa-eremuetara eta/edo Internetarako eta teknologiarako sarbide gutxiago duten inguruneetara. Bestalde, hirugarren sektore sozialeko erakundeen sarea izateak eta Oinarritzko

Gizarte Zerbitzuen lankidetzak Europako Haur Bermearen esparruan lehentasunezkoztat jotako haur eta nerabeen sarbidea bermatzen du.

Gainera, Aukerak Suspertzen programan CODI barnean hartzeak aukera ematen du programa honen azpiegitura, baliabideak eta esperientzia erabiltzeko, eten digital soziala murrizteko helburu komuna lortze aldera. Bi programek konpetentzia digitalen inguruko prestakuntza barne hartzen dute, eta Aukerak Suspertzenek horretarako baliabide materialak eta pertsonalak ditu.

### **2023 zifratan**

2020an hasi zenetik, programak areagotu egin du gizarte-desabantailan dauden haur eta nerabeen arreta, eta 2023an 3.710 adingabe artatu dira. Zifra hori % 31 hazi da aurreko ekitaldiarekiko, 2.829 adingabe erregistratu baitziren. Artatutako pertsonen gorakadarekin batera, programan parte hartzen duten boluntarioen kopuruak gora egin du: 2022an 556 pertsona ziren eta 2023an 727, hau da, % 30,7.

Hazkunde hori lurralde guztietan erregistratu da: Bizkaian 1.444 adingabe zeuden 2022an, eta 1.844, berriz, 2023an; Araban, 429 adingabe izatetik 941 izatera igaro da; eta Gipuzkoan, 689 adingabe izatetik 925 izatera. Programa Euskadiko 90 udalerritan dago jada: 12 Araban, 49 Bizkaian eta 29 Gipuzkoan.

2023an ere handitu egin da programaren onuradun diren familien kopurua: 2.896 familia, 2022ko 2.201 familiaren aldean, hau da, % 31,5 gehiago. Familien erdia baino gehiago bi gurasokoak dira (% 60), baina bestelako familiak ere daude: guraso bakarreko familiak amarekin (% 36), guraso bakarreko familiak aitarekin (% 2) eta beste familia-mota batzuk (% 2).

Artatutako haurren eta nerabeen % 75ek baino gehiagok ikastetxe publikoetan ikasten du, eta gainerakoek itunpeko ikastetxeetan. Horietatik 1.472 Lehen Hezkuntzako ikasketak egiten ari dira, gehienak 2. zikloan.

Programan parte hartu duten pertsonen kopuruak gora egin du etengabe hasieratik eta, horren ondorioz, beharrezkoa izan da hezkuntzaren arloko arreta zuzena zabaltzea eta programarako baliabideak jartzea. 2023an, 307 dispositibo eta 152 konektagarritasun-txartel banatu ziren, haurrek eta nerabeek beren ikaskuntza-prozesuetan bete-betean parte hartu ahal izan dezaten.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

### ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAK LEHEN SEKTOREKO GARAPEN TEKNOLOGIKORAKO *HANDITU INNOVA* LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU

- **Berrikuntzan inbertsioak egiteko, ekoizpen-kostu zuzenak murrizteko eta lanaren produktibitatea hobetzeko**
- **Guztira, 2.995.000 euro bideratuko dira.**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio **Amaia Barredo** Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aginduari, **ekoizpen-kostu zuzenak murrizteko eta lanaren produktibitatea hobetzeko berrikuntzan inbertsioak eginez, lehen sektoreko garapen teknologikorako *Handitu Innova* laguntza-programa onartzeko denari**. Laguntza horietara 2.995.000 euro bideratuko dira, eta Euskadiko aurrekontuen kargura finantzatuko dira: 1.495.000 euro 2024. urtean eta 1.50.000 euro 2025ean.

“Lehen sektoreko nekazaritza-ekoizpeneko berrikuntza teknologikorako laguntzek –*HANDITU INNOVA 2024*–, aukera ematen dute nekazaritza-sektorearen **ekimen estrategiko eta berritzaile handiei laguntzeko**, betiere horien helburua bada tokiko eta eskualdeko ekonomiak traxionatzea eta eraldatzea berrikuntza teknologikoan inbertsio handiak eginez **ekoizpen-kostu zuzenak murrizteko**, ustiategiaren lehiakortasuna hobetzeko eta **negozio-aukera berriak** sortzeko”, nabarmendu du **Amaia Barredo** sailburuak.

Laguntzen helburua da **nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien funtzionamendu eta jasangarritasun orokorra hobetzea**, batez ere ekoizpen-kostuak murriztuz, ekoizpena hobetuz eta birbideratuz eta teknologia berriak sartuz.

Horrez gainera, eta **ingurune naturala, higiene-baldintzak** edo animalien **ongizate-mailak hobetu** nahi dituzte, bai eta nekazaritza garatzeko, egokitzeko eta **modernizatzeko azpiegiturak** sortu eta hobetu ere, nekazaritza-lurren irisgarritasuna, lurak finkatzea eta hobetzea, energia jasangarria hornitzea, **energia-efizientzia** eta ur-hornidura eta -aurrezpena barne.

#### **Nekazaritzako ekoizpena**

Beste helburuetako bat da hondamendi naturalek edo ezohiko gertakariak, hondamendi naturalekin pareka daitezkeen fenomeno klimatiko kaltegarriak, abereen gaitzek edo landareen izurriteak, eta babestutako animaliek kaltetutako **nekazaritza-ekoizpenaren ahalmena lehengoratzeko**, bai eta gertakari edo faktore horiek eragindako kalteen arriskua prebenitzea eta arintzea ere.

Era berean, **laguntzen helburua klima-aldaketa arintzen eta haren eraginetara egokitzen** laguntzea da, baita berotegi-efektuko gasen emisioak murriztearen eta karbono-bahitzea hobetzearen bidez ere, eta energia

jasangarria eta energia-efizientzia sustatzea; bioekonomia zirkular jasangarria bultzatzea; eta garapen jasangarria eta baliabide naturalen (uraren, lurzorua, airearen) kudeaketa efizientea sustatzea, bereziki mendekotasun kimikoa murriztearen bidez.

**Proiektu hauek** finantzatu dira, besteak beste: uztak biltzeko **robotikako** inbertsioak; nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreko doitasunezko 4.0 makineria eta teknologiak, produktu kimikoen erabilera murriztera bideratuak, bereziki produktu fitosanitarioak eta ongarriak; ereite- eta laborantza-faseetako laboreen trazabilitatea eta kalitatea kontrolatzea; ganaduaren geolokalizazioa; ganaduarentzako itxitura digitalak; ganaduaren genetika eta ugalketa hobetzea; eta goi-teknologiako instalazioak eta elementuak berotegietan, besteak beste, argiztapen-, berokuntza- eta ureztatze-sistemetan.

Laguntzak honako hauetarako ere badira: ustiatzeko mindak prozesatzeko eta tratatzeko **goi-teknologiako makinak erosteko**; laboreetan eta azientetan beharrezkoak diren instalazioak, ekipamenduak eta makineria erosteko; eta behi-, ardi- eta ahuntz-azientak kudeatzeko prozesuak digitalizatzeko.

**Eskabideak** aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Agindu honek indartu egiten du nekazaritza-sektoreko enpresei berrikuntza teknologikoa sustatzeko eta nekazaritza-ustiategien lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko ematen zaien laguntza.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

### EUSKO JAURLARITZAK 5,6 MILIOI EUROKO APARTEKO LAGUNTZA ONARTU DU 2024RAKO ARDOAREN SEKTORERAKO, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIZAINEI LAGUNTZEKO (ERRIOXA JDK)

- Ukrainako gerraren ondoriozko enpresa-etekinen murrizketa dela-eta.
- 8 milioi kilogramo mahats aterako dira merkatutik, gutxi gorabehera 5,2 milioi litro Errioxa JDK-ko ardo Euskadin.
- Mahatsa biltzen duten mahastizainei laguntzea, Errioxa JDK-k kanpaina honetarako adostutako tinta-mahatsaren errendimenduaren % 10eko murrizketa konpentsatzeko.
- **Primen zenbatekoak: 50 hektareatik beherako ustiategiak: 487,5 €/Ha; 50 eta 100 Ha artean: 325,0 €/Ha eta 100 Ha-tik gorakoak: 130 €/Ha.**
- **Eskatzaile bakoitzeko laguntza gehienez 280.000 eurokoa izango da.**

Gobernu Kontseiluak ontzat eman du Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Agindua, zeinaren bidez, **ardoaren sektoreari 5,6 milioi euroko aparteko laguntza ematea onartu baita 2024rako**, Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren (Errioxa JDK) babespean dauden Arabako Errioxako mahastizainei laguntzeko Ukrainako gerraren ondoriozko enpresa-etekinak murriztu direla-eta.

Laguntza hau **Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuak ezarritako errendimendumugak** konpentsatzeko eman da, eta 2024an mahats tinta bildu duten mahastizain guztientzat dago irekita. Hasierako aurreikuspenetan 8 milioi kilogramo mahats ateratzea espero da merkatutik, hau da, 5,2 milioi litro inguru Errioxa JDKko ardo Euskadin.

Zenbateko horiek hektarea-tarteen araberako laguntzei dagokie, **ustiategi txikienak lehenetsiz**. Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko ofiziozko laguntzaren kudeaketa da, aparteko estatu-laguntzen **Ukrainako esparrua** delakoaren babesean.

**Amaia Barredo** sailburuaren arabera, "Euskadiko mahastizaintza eta ardogintza sektorearen egoera une honetan zaila da. Izan ere, oraindik ez dago COVID-19aren pandemiatik guztiz suspertuta, eta, beraz, Errusiak Ukrainan egindako inbasioaren eta Israelen eta Palestinaren arteko gatazkaren ondoriozko erregaien, energiaren, lehengaien eta bestelako horniduren garestitzeak eragin negatiboa sortu dio".

"Prezioen garestitze horrek, gehi Estatu Batuen politika protekzionistak eta Brexit-aren ondorioz merkataritzan sortutako zailtasunek nabarmen oztopatu dute sektorearen susperraldia, eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan

ekoizitako ardoaren salmentek bilakaera negatiboa izan dute, bereziki Arabako Errioxan, Errioxako JDK jatorri-deituraren izenean ardoa ekoizten duen eskualdean. Alde horretatik, **salmentak % 7,5 inguru murriztu dira** nazioarteko merkatuetan”, zehaztu du Barredok.

Hortaz, eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka bere horretan mantendu da 2023an. **Biltegiko ardo-izakinak % 7,22 igo dira**, nahiz eta produkzioa jaitsi (-%2,46). Egoera horren aurrean, Errioxa JDK-k hainbat neurri ezarri ditu, esaterako: 2024ko kanpaina biltzen den tinta-mahatsaren errendimendu onargarrien muga % 10 murriztu du (6.500 kg/Ha-ko errendimendu estandarren gainean), eta mahastizaintzaren sektoreko tresnaren barruan **uzta berdea bultzatu du** kanpaina honen barruan, beste hainbat neurriekin batera, eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka berreskuratzen saiatzeko.

### Ziurgabetasuna

Hori dela eta, 2024ko aurreikuspenak **ziurgabetasunez** beteak daudenez gerrak irauten duen bitartean, jarrera kontserbadorea hartu behar izan da uzta-ekoizpenari dagokionez, eta horrek finantza-laguntza behar du. Izan ere, Europako Batzordeak Errusiak Ukraina inbaditu ondoren ekonomia babesteko laguntza-neurriei buruzko Aldi Baterako Esparrua luzatu eta zabaldu du.

2023ko martxoaren 9an, Europako Batzordeak Krisi eta Trantsizioko Aldi Baterako Esparrua onartu zuen, Ukrainaren aurkako erasoaren ondoren **ekonomia babesteko estatu-laguntzako neurriei buruzkoa**. Ondoren, Europako Batzordeak erabaki zuen 2024ko ekainaren 30era arte atzeratzea Krisi eta Trantsizioko Aldi Baterako Esparruaren deuseztatze mailakatua, eskatutako babes-neurriak ezartzeko eta estatu kideei beharrezko neurriak aplikatzeko denbora emateko.

Gainera, aldaketa horretan, emandako dirulaguntzen **laguntza-atalaseak igo egin ziren**, laguntzaren zenbateko mugatua oinarri harturik, zenbateko hauekin, zehazki: 2,25 milioi eurora arte izaera orokorreko enpresa bakoitzeko, eta 280.000 eurora arte nekazaritza-produktuen lehen mailako ekoizpenean jarduten duen enpresa bakoitzeko, eta 335.000 eurora arte arrantzaren eta akuikulturaren sektoreetan.

Azkenik, Europako Batzordeak Krisi eta Trantsizioko Aldi Baterako Esparruaren **bigarren aldaketa** bat onartu du, Errusiak Ukrainari eraso egin ondoren ekonomia babesteko estatu-laguntzako neurriei loturik, eta, horren bidez, aldaketa hori 2024ko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

### Galerak arintzea

Horrela, Aldi baterako Esparru Nazional horren babesean, agindu honek jasotzen duen salbuespeneko laguntzak **Araban mahastizaintzan diharduten pertsonen diru-sarreraren galera arintzen** lagundu nahi du, kontuan hartuz Errioxa JDK-k bultzatutako neurrien arteko bat eta horrek dakartzan kostu erantsiak, bai eta **eskaintza eta eskaria arautzen ere, Euskadiko mahastizaintza- eta ardogintza-sektorea berrerekatuz**, eta, horrela, Errioxa JDKren babespean dagoen ardoaren guztizkoa murriztuz.



Beraz, mahatsa biltzen duten mahastizainei laguntza eman nahi zaie, Errioxa JDK-k kanpaina honetarako adostutako mahats tintaren errendimenduaren % 10eko murrizketa konpentsatzeko. Horrela, 8 milioi kg mahats inguru atera nahi dira merkatutik, hau da, 5,2 milioi litro inguru Errioxa JDK-ko ardoa Euskadin.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten **mahastizaintzako ustiategien titularrak izan daitezke onuradun**: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatutako nekazaritza-ustiategi baten **titularra izatea**, edo Arabako Mahastien Erregistroan inskribatutako eta Errioxa JDK-k babestutako mahastiak dituen edozein lurralde historikotako **titularra izatea**; 2024ko ekitaldian mahats tinta bildu izana Errioxa JDKren barruan ardo bihurtzeko; eta 5.850 kg/Ha-ko mahats tintaren **ekoizpen-errendimendu onargarriaren muga ez gainditzea** (6.500 kg/Ha-ko errendimendu estandarren % 90).

**Aplikazio-eremua** Arabako Mahastizaintza Erregistroan sartuta dauden eta Mahastien Erregistroan inskribatuta dauden lursailak eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileko titularrak izango dira.

#### **Laguntzaren zenbatekoa**

Laguntzaren balioa **prima bat izango da tinta-mahatsaren hektarea bakoitzeko**, eta gehieneko errendimendua 5.850 kg/Ha-koa izango da, Errioxa JDKren arabera. Ustiategiko hektarea-tarteak Arabako Lurralde Historikoko Mahastizaintza Erregistroan erregistratutako eta Errioxako JDK-k babestutako hektareen arabera ezartzen dira. Primen zenbatekoak honako hauek izango dira: a) **50 Ha-tik beherako ustiategiak: 487,5 €/ Ha**; b) **50 eta 100 Ha arteko ustiategiak: 325,0 €/ Ha** eta c) **100 Ha-tik gorako ustiategiak: 130 €/ Ha**.

Ustiategi onuradunen titularrei laguntza ordaintzeko, Errioxa JDKak lehenik egiaztatuko du Ardoaren Esku-hartze Sektorialaren 2024ko uzta berdeari atxikitako mahats tintaren hektareak kendu direla. Eskatzaile bakoitzeko **laguntzaren gehieneko zenbatekoa** ez da inola ere **280.000 €** baino gehiago izango.

Laguntzak Arabako Foru Aldundiaren Ardo Etxearen eta, hala badagokio, Errioxa JDKren Kontseilu Arautzailearen erregistro eta espedienteetan dauden datuen arabera kudeatuko dira, eta aurreikusitako zenbatekoen arabera **ezarritako kalkuluetan oinarrituta** emango dira, baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

## Justizia eta Giza Eskubideak

### **GIZA ESKUBIDEEN 2024KO RENÉ CASSIN SARIRAKO DEIALDIA EGIN DA**

Gobernu Kontseiluak René Cassin Sariaren XXI. edizioaren deialdia onartu du gaur. Sari hori 2003an sortu zen, giza eskubideen arloan egindako jarduketa esanguratsuak publikoki aitortzeko. Sariaren diru-zenbatekoa 25.000 eurokoa da, eta hautagaitzak azaroaren 18ra arte aurkeztu ahal izango dira.

María Jesús San José Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak onartu duen deialdi honetan saritu daitezke euren ibilbide pertsonal edo profesionalaren bidez giza eskubideen sustapen, defentsa eta zabalkundearen alde hartu duten konpromisoa adierazten duten pertsonak nahiz erakundeak.

Epaimahaiko kideak bizikidetzaren eta giza eskubideen esparruan ospe handia duten pertsonak dira. Hauek dira: Alfredo Retortillo Paniagua (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea), Silvia Escobar Moreno (Giza Eskubideen inguruko gaietarako Espainiak izandako misio bereziko enbaxadorea), Jon Mirena Landa (UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren zuzendaria), María Oianguren Idígoras (Gernika Gogoratuz zentroaren zuzendaria), Juan José Álvarez Rubio (UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna), Miren Elgarresta (Emakunderen zuzendaria), Mikel Mancisidor (NBEko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeko kidea), Manuela Mesa (CEIPAZ Bakearen Ikerketarako Hezkuntza Zentroaren zuzendaria), Carlos Martín Beristain (Giza eskubideetan aditua, 2020ko René Cassin sariaren irabazlea) eta Jagoba Álvarez Ereño (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun zuzendaria).

Sariaren diru-zenbatekoa 25.000 eurokoa da, 2023an ezarritako igoeraren ondoren; urte horretan 14 hautagaitza jaso ziren. Hautagaitzak aurkezteko epea urriaren 21ean hasiko da eta azaroaren 18an amaituko da.

Sariak René Cassini zor dio izena. René Cassin Baionan jaio zen 1887an, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren sustatzaile nagusizat hartzen da. Cassinek Bakearen Nobel Saria jaso zuen 1968an, giza eskubideen alde egindako lan nekaezinarengatik. Saria jaso duten pertsonen eta erakundeen artean daude Maiatzeko Plazako Amonak Elkarte Zibila, Federico Mayor Zaragoza, Alec Reid, Koro Erdozia Lasa, Elisa Loncon Antileo, Dora María Téllez eta ICDP – Heriotza Zigorren Aurkako Nazioarteko Batzordea, iazko azken edizioan saritu zena.

## Justizia eta Giza Eskubideak

### DEUSTUKO UNIBERTSITATEAK INDARKERIAREN DESLEGITIMAZIOA SUSTATUKO DUTEN HEZIKETA-MATERIALAK EGITEKO HITZARMENA ONARTU DA

- **Terrorismoaren biktimen testigantza unibertsitateko geletara eramaten duen Adi-Adian programa mantentzea ere barne hartzen du**

Gobernu Kontseiluak Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren eta Deustuko Unibertsitatearen artean lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko oniritzia eman du gaur, Euskadiko indarkeriaren historia kritikoki ulertzea eta indarkeria deslegitimatzea sustatuko duten hezkuntza-materialak egiteko. Hitzarmenak terrorismoaren biktimen testigantza unibertsitateko geletara eramaten duen Adi-Adian programa mantentzea ere barne hartzen du.

María Jesús San José Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak proposatuta, kontseiluak azken hamarkadetan Euskadin izandako indarkeriaren historia eta indarkeriaren desnormalizazioan eta deslegitimazioan eta bakegintzan aurrera egiteko belaunaldi berriei erakutsiko zaien historia landuko duen belaunaldien arteko eta diziplinar-teko elkarrizketarako gun bat eskaintzea helburu duen hitzarmena berretsi du.

Horretarako, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroak lideratutako Memoria, Hezkuntza Historikoa eta Bakegintza Euskadin Ikaskuntza Komunitatearen (ComAp) jarduerak babestuko dira. Zehazki, hezkuntza historikoak indarkeriari zilegitasuna kentzeko egiten dituen ekarpenetara hurbiltzeko lan egingo da; hezkuntza historikoa Euskadin bakea eraikitzeke orientatzeari buruzko trukerako eta lankidetzarako espazioak sortuko dira historialariek eta gizarte-arloko beste profesional batzuekin; eta indarkeria deslegitimatuko duten eta, batez ere, unibertsitate-hezkuntzara, aditua ez den publiko orokorrera eta Historia, Humanitate eta Gizarte Zientzietako irakasleak gatazkaren eta indarkeriaren inguruan prestatzera bideratuko diren hezkuntza-baliabideak ekoiztea sustatuko da.

Era berean, hitzarmenak jasotzen du terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen testigantza zuzena Deustuko Unibertsitateko ikasleengana hurbiltzen duen Adi-Adian programa eskaintzen jarraituko dela, biktimen aitorpenerako eta erreparaziorako gobernu-akordioan jasotzen den bezala. Era berean, jasotzen da programa hori ebaluatu egin behar dela beste gradu eta master batzuetara hedatzea aztertzeko, bereziki irakasleen prestakuntzarekin lotutakoetara. Hitzarmenak 194.529 euroko diru-ekarpena ezartzen du 2024 eta 2026 artean.

## Justizia eta Giza Eskubideak

### **GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENA EMAN DU 10 PLAZA SORTZEKO BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 17 ZENBAKIKO EPAITEGIA ETA ALEGIAKO BAKE EPAITEGIA ABIAN JARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan hamar plaza sortzeko oniritzia eman du. Horietako zortzik Bilboko Lehen Auzialdiko 17 zenbakiko Epaitegia bultzatzeko aukera emango dute, eta beste bi egoitza Alegian duen Bake Epaitegirako izango dira.

María Jesús San José Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak orain dela aste batzuk Eusko Legebiltzarrean egin zuen agerraldian eman zuen jakitera zuzentzen duen sailaren asmoa dela epaitegi gehiago izatea, eskaerari erantzun ahal izateko eta prozedura judizialeko atzerapenak arintzeko.

Helburu horrekin, Gobernu Kontseiluak gaurko bileran eman du oniritzia Bizkaiko hiriburuan Lehen Auzialdiko 17 zenbakiko Epaitegia sortzea ahalbidetuko duten zortzi lanpostu sortzeko. Zehazki, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko hiru, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko lau eta Laguntza Judizialeko Kidegoko bat dira.

### **Alegiako Bake Epaitegia**

Era berean, Alegiako (Gipuzkoa) Bake Epaitegirako bi plaza sortzeko oniritzia ere eman du.

Joan den apirilean onartu zen Anoeta, Irura, Alegia, Amezketeta, Ikaztegieta, Abaltzisketa, Altzo, Orendain eta Baliarraingo Bake Epaitegien Idazkaritzen Elkartea eratzea, egoitza Alegian duena. Elkartiaz Justizia Administrazioko langileak arduratuko dira, eta horretarako Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko plaza bat, Elkartearen Bulego Judizialeko Idazkaritza beteko duena, eta Laguntza Judizialeko Kidegoko beste bat baimendu dira. Horrela, epaitegi honen eraginkortasuna hobetu nahi da, eta herritarrei arreta hurbilagoa eskaini.

## Justizia eta Giza Eskubideak

### GOBERNU KONTSEILUAK ESPETXEETAN 261 PLAZA SORTZEKO ONIRITZIA EMAN DU

- **Datozen asteetan lanpostuak sortzeko dekretua onartu aurreko urratsa da**

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan 261 plaza sortzeko aurrekontuaren gehikuntza baimendu du gaurko bileran, eta datozen asteetan onartuko da, beraz, lanpostu horiek sortuko dituen dekretua. Zehazki, hiru espetxeetan banatutako 213 plaza dira, eta beste 49 espetxeetako zerbitzu zentraletarako dira.

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak langile-kopurua handitzea eskatu zuen, espetxeen arloko eskumen-aldaketan oinarrituta, eta gaur eman zaio oniritzia eta aurrekontuan islatuko da. Gipuzkoako espetxerako 96 plaza, Arabako espetxerako 104 eta Bizkaiko espetxerako 13 dira. Plaza horiek hainbat eremutakoak dira: bizikidetza-kudeatzaileak, zerbitzuari laguntzekoak, psikologoak, gizarte-hezitzaileak, gizarte-langileak, legelariak edo koordinatzaileak, besteak beste.

Gainera, beste 48 plaza sortuko dira espetxeetako zerbitzu zentraletan; kasu horretan azpiegituren kudeaketarekin, langileekin, berdintasunarekin, lan-arriskuen prebentzioarekin eta informatikarekin lotuta, besteak beste.

### **Aukerak**

Era berean, Gobernu Kontseiluak Aukerak – Gizarteratzearen Euskal Agentzian beste 26 plaza sortzeko oniritzia ere eman du, eta 74 langile izango ditu, beraz, aurrerantzean.

Horrela, legegintzaldi honetan erakunde publiko horri bultzada eman ahal izango zaio, gizarteratzeko eta laneratzeko benetako tresna bihur dadin, María Jesús San José Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak Legebiltzarrean egin berri duen agerraldian azaldu zuen bezala.

## Cultura y Política Lingüística

### EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL INFORME DE 2023 DE ELEBIDE, SERVICIO DE GARANTÍA DE DERECHOS LINGÜÍSTICOS

- En 2023 se registraron 222 incidencias relativas a vulneraciones de los derechos lingüísticos, 10 más que el año anterior.
- La mayor parte de las quejas que recibe el Servicio de Garantía de Derechos Lingüísticos, el 91,3%, están relacionadas con vulneraciones de derechos en el ámbito público.
- El 98,8% de las quejas están relacionadas con el derecho a usar el euskera.

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el informe de 2022 de Elebide, el Servicio de Garantía de Derechos Lingüísticos. El informe recoge que el año pasado se registraron 222 incidencias relativas a vulneraciones de los derechos lingüísticos, 10 más que el año anterior. 25 de esas 222 incidencias fueron invalidadas por ser repetición de una incidencia anterior, por deberse a un error en la aplicación, o porque el motivo de la queja había sido resuelto por otras vías. De las 197 incidencias restantes, se rechazaron 13 por no existir fundamento jurídico para la tramitación de la incidencia. Por lo tanto, en 2023 se tramitaron 176 incidencias.

De todas las incidencias tramitadas, 161 fueron quejas y 159 de ellas (98,8%) hacían referencia al quebranto del derecho a usar el euskera; en 2 casos, se vulneró el derecho a usar el castellano. El 91,3% de todas las quejas (147) fueron vulneraciones de los derechos lingüísticos acaecidas en el ámbito público y el 8,7% (14 quejas) corresponde al ámbito privado. El resto de las incidencias fueron consultas (11), solicitudes (2) y sugerencias (2).

El 73,1% (144 incidencias) de las incidencias dirigidas al servicio fueron presentadas por hombres, el 38,4% (58 incidencias) por mujeres, y el 0,5% (1 incidencia) por personas de género no binario.

#### Las quejas, por ámbitos

El 91,3% de las quejas fueron vulneraciones de derechos acontecidas en el ámbito público. Cabe destacar que la mayoría hacen referencia a la Administración General de la CAPV (40,8%) y a la Administración Local (38,1%).

Si analizamos las quejas presentadas contra el sector público de la CAPV, Elebide recibió las siguientes quejas:

- 23 fueron denuncias de vulneraciones normativas por parte del Gobierno Vasco (Seguridad, 4; Gobernanza Pública y Autogobierno, 7; Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, 2; Economía y Hacienda, 1; Educación, 3; Planificación territorial, Vivienda y Transportes, 2; Salud, 1; Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, 2; y, por último, Cultura y Política Lingüística, 1)

- 37 fueron quejas presentadas contra organismos y sociedades públicas del Gobierno Vasco (26 de ellas contra Osakidetza; Eusko Trenbideak recibió 5 quejas; Eusko Trenbide Sarea 1; Osatek, 3; EJIE, 1; UPV-EHU, 1).
- En el caso de quejas presentadas contra las diputaciones forales, en 2023 se presentó una queja más que en 2022.
